LAGUN-MINA

IDOIA IRAZOKI BENGOETXEA
Lehen Hezkuntza Akzesita
Lesakako Irain Ikastola

Duela bi urte gertatu zitzaidana kontatuko dut hemen. Abuztu hasieran, egun eguzkitsu batean, bazkalostean, nire gurasoak, nire ahizpa eta ni oporretara nora joan eztabaidatzen ari ginen. Nire gurasoek Alemaniara joan nahi zuten. Nire ahizpak berriz, Frantziara, Pariseko "Disney Land Resort Paris" parke tematikora.

Niri ez zitzaidan ez Alemaniara ez Parisera joateko gogorik piztu, nik Italia edo Ingalaterrara joan nahi nuen oporretan. Nire gurasoei ideia hori komentatu nien eta hauei bi lekuak ongi iruditu zitzaizkien. Nire ahizpari, Aitziberri, berdin itaundu nion, ea ze lekutara joan nahi zuen oporretan, Italia edo Ingalaterrara. Honek, Italiara joatea nahiago zuela erantzun zuen eta harat joatea erabaki genuen, baina zein hiritara?

Italiara joatea erabaki eta gero, zein hiri edo herritara joan aukeratu genuen. Nire gurasoek Erromara, nire ahizpak Veneziara eta nik nire ahizparen leku berdinera joan nahi nuen. Ados jarri ginen ere Veneziara joateko.

Nire aitak iritzirik eskatu gabe hotel batera joan beharrean kanpin batera joan behar genuela esan zuen. Nik ea zergatik hartu zuen erabaki hori galdetu nion eta berak hauxe erantzun zidan:

–Nahiko diru gastatuko dugu hegazkina ordaintzean eta horregatik diru gutxiago gastatzeko hotel batera joan beharrean kanpin batera joanen gara, merkeagoa da eta.

Niri, Veneziara joatekotan bertako inauteriak ikustea gustatuko litzaidake, baina hori otsailean denez eta nire gurasoak oporrak abuztuan dituztenez ezinezkoa da. Baina beno, gutxienez bertara oporretara joanen naiz abuztuan: "Gondolak, etxeak, kanalak... ikusiko ditut" – pentsatu nuen egun hartan.

Hurrengo egunean, nire gurasoak bidai agentzia batera joan ziren. Bertan esan zieten Venezian bertan ez zegoela kanpinik baina Venezia ondoko herri txiki batean bai. Hegaldien prezioez ere informatu egin zituzten nire gurasoak, eta zein hegazkinetan joan aukeratu zuten prezioak konparatuz, bertako pertsonen laguntzaz.

Abuztuaren bostetik abuztuaren 31 arte Venezia ondoko herri txikian egotea adostu genuen. Horrela, irailaren hasierarako etxean egongo ginen eta eskola ongi hasten ahal genuen.

Abuztuaren 4a, ia egun osoa maletak egiten igaro genuen. Hurrengo egunean, abuztuaren 5ean, goizeko zortzietan Hondarribian hegazkina hartu genuen Madrilerantz. Madrilgo aireportuan Veneziaranzko hegazkina hartu genuen goizeko hamaiketan.

Arratsaldeko lau t'erdietarako Venezian geunden. Venezian geundela aprobetxatuz, hiri hori pixka bat ikustera joan ginen.

Benetan polita iruditu zitzaidan Venezia. Ez zegoen kalerik, kaleen ordez kanalak zeuden eta kanaletako uretan flotatzen gondola pilo bat. Ez ikusi arren, nik maskaradun pertsonak imajinatu nituen gondolen gainean inauterietan gertatzen den bezala.

Veneziako monumentu eta etxe gehiago bisitatu ondoren, oporrak igaro behar genituen herrixkara eraman gintuen autobusera igo ginen, gutako bakoitzak Veneziako izozki-denda bateko izozkia jaten genuen bitartean, Italian oso onak eta ospetsuak diren horietako izozki bat.

Veneziatik bizpahiru kilometrotara, zegoen herrixka eta bertako kanpinaren izenak ez ditut gogoratzen, baina ez da beharrezkoa izen horiek aipatzea gertatu zitzaidana kontatzeko.

Kanpinera iritsi eta segidan, bertan zeuden hamar etxoletatik bat alokatu genuen oporraldia pasatzeko. Ez zen oso handia, baina nahiko genuen bertan hilabete bat emateko.

Gaua igaro eta biharamunean, kanpinean deskantsatzen gelditzea erabaki genuen. Nik, kanpinetik buelta bat ematea erabaki nuen, eta halaxe egin ere. Etxolez gain, kanpin-denda ugari zeuden, bat ere kolore berdinekoa.

Kanpina, belardi lau bat zen, ez zegoen maldarik. Lasai-lasai oinez nindoala, burua eskuin aldera biratu nuen eta bere kanpin-dendaren ondoan, neska lirain bat ikusi nuen. Apatx zegoen, belardiko margaritekin eskumuturreko eta sorta txikiak egiten.

Oso liraina zen, nire adinekoa zirudien neskatxa. Bere begiek itsasoaren urdintasuna adierazten zuten begirada bakoitzean. Sudur eta belarri txikiak zeuzkan. Bi mototsez bilduta zeukan ilea txokolatearen antzeko kolorekoa zen, marroi-marroia. Bai aurpegi ederra zeukala neska xarmangarri hark!!!

Ni, euskaraz mintzatzen hasi nintzaion:

–Kaixo.

–Kaixo –erantzun zidan berak, ahoskatzerakoan zailtasun edo kezkak izango balitu bezala

–Euskaraz hitz egiten dakizu? –galdetu nion nik.

Orduan berak bere aitatxirengandik euskara pixka bat ikasi zuela esan zidan. Gehiago ere esan zidan, bere aitatxi Ameriketara artzain joan zela eta bertan bizi zela...

–Zu orduan, Amerikarra zara, ezta? -galdetu nion.

–Bai, Ipar Amerikan bizi naiz –erantzun zidan oraingoan, ziurtasun gehiagorekin.

–Noiz arte egonen zara hemen oporretan?

–Ba. Ez dakit seguru baina jada ekainetik honat daramat hemen.

–Ni, nire guraso eta ahizparekin hilabete bat igarotzera etorri naiz.

–Ongi da, orduan egunero elkar ikusi ahalko dugu? –galdetu zidan.

–Bai, hori uste dut –erantzun nion nik ilusio handiz.

Egun guztietan elkar ikusi genuen eta hitz egiterakoan ongi moldatu ginen berak zekien euskara eta nik nekien ingeles apurrarekin. Gauza gehiago esan zizkidan, zehazki non bizi zen, Elisabeth izena zuela, neba bat zeukala...

Nik ere gauza gehiago kontatu nizkion nitaz: Lesakan bizi nintzela, Idoia nuela izena...

Elisabeth, Abuztuaren 25ean bueltatzen zen bere herrira eta egun hartan, ni beti bezala, goizean berarekin egotera joan nintzen, baina besteetan baino tristeago.

Betiko lekuan aurkitu nuen, apatx eserita kanpin dendaren ondoan, baina oraingoan maletak prestatzen ari zela.

–Egunon, Elisabeth –esan nion.

–Berdin –erantzun zidan.

–Gaur bueltatzen zara zure herrira ezta?

–Bai.

–Harremanetan jarraitzea, ongi iruditzen zaizu? –galdetu nion jakin-minez.

–Ongi da.

–Posta elektronikoa daukazu?

–Nik bai, ze ondo!

–Ongi egin bueltako bidaia, Elisabeth!

–Berdin erraten dut! –esan zuen Elisabethek.

–Bye, bye! -esan nion.

–Agur edo bye, bye, muxu bat! –eta hori esanda Elisabeth autobusean sartu zen, aireporturanzko autobusean.

Nik, handik sei egunetara ere etxerako bidea hartu nuen. Hegazkinean, Italiako edertasunean pentsatzen nuen, baina Italian baino gehiago Elisabethengan jarriak nituen nire pentsamendu guztiak. Hain atsegina zen oporretan egin nuen lagun-mina!!!

Etxera joatean egin nuen lehenengo gauza maletak ohe gainean utzi eta ordenagailua piztea izan zen, posta elektronikoz Elisabethekin komunikatzen hasteko.

Ez pentsa Elisabethekiko harremana galdu dudanik ez eta gutxiagorik ere, egunero lagun-minagoak egiten gara.

Aitari komentatuko diot ea aurten oporretan Estatu Batuetara joaten ahal garen Elisabethi bisita bat egitera...